



HEZKUNTZA SAILA
Kudeaketa ekonomikoaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Dirección de Gestión Económica

EBAZPENA, KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ZUZENDARIARENA, UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASLEAK ESKOLATZEKO IKASKETA-BEKA ETA -LAGUNTZEN EBAZPENAK ALDATZEN DITUENA 2021-2022 IKASTURTE AKADEMIKORAKO.

Hezkuntza sailburuaren 2021eko uztailaren 13ko Aginduaren bidez, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzen deialdia ireki zen 2021-2022 ikasturterako.

Aipatutako deialdiaren 30. artikuluan ezarritako ebazpen-prozedurarekin bat etorriz, proposamenak aztertu ondoren eta deialdian ezarritako irizpideekin bat etorriz, 2021eko abenduaren 1 eta 30ean, 2022ko martxoaren 15ean, maiatzaren 19an eta ekainaren 2an Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendariak emandako ebazpenak egin ziren.

Deialdiaren 30.6 eta 34. artikuluen arabera, eta jantokiko osagaia emateko kontuan hartutako baldintzak aldatu direla kontuan hartuta, ebazpen horiek aldatu egiten dira.

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 2021eko abenduaren 1eko eta 30eko ebazpenak, 2022ko martxoaren 15ekoak, maiatzaren 19koak eta ekainaren 2koak aldatzea, eranskinean zerrendatutako ikasleen jantoki-osagaiari dagozkion zenbatekoei dagokienez, eta 2021-2022 ikasturtean jantokira benetan joan den aldiari egokitzea.

Bigarrena.- 210.528 € ordaintzea Eranskinean zerrendatutako ikasleei, aldaketaren ondoren sortutako aldeengatik.

RESOLUCIÓN DE LA DIRECTORA DE GESTIÓN ECONÓMICA, DE MODIFICACIÓN DE LAS RESOLUCIONES DE BECAS Y AYUDAS AL ESTUDIO PARA LA ESCOLARIZACIÓN DE ESTUDIANTES DE NIVELES NO UNIVERSITARIOS PARA EL CURSO ACADÉMICO 2021-2022.

Por Orden de 13 de julio de 2021 del Consejero de Educación, se daban normas y se abría la Convocatoria de becas y ayudas al Estudio para la escolarización de estudiantes de niveles no universitarios para el curso académico 2021-2022,

De acuerdo con el procedimiento de resolución establecido en el artículo 30 de la citada convocatoria, estudiadas las propuestas, y conforme a los criterios establecidos en la Convocatoria, se realizaron las resoluciones de 1 y 30 de diciembre de 2021, de 15 de marzo, 19 de mayo y 2 de junio de 2022, de la Directora de Gestión Económica.

De acuerdo con los artículos 30.6 y 34 de la convocatoria, y teniendo en cuenta la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión del componente de comedor, se procede a la modificación de dichas resoluciones

RESUELVO:

Primero.- Modificar las Resoluciones de 1 y 30 de diciembre de 2021, de 15 de marzo, 19 de mayo y 2 de junio de 2022, en relación a los importes correspondientes al componente de comedor del alumnado relacionado en el Anexo, ajustándolos al periodo efectivo de asistencia al comedor durante el curso 2021-2022.

Segundo.- Abonar 210.528 € al alumnado relacionado en el Anexo, por las diferencias generadas tras la modificación.

**ANE URKIOLA ALUSTIZA
KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ZUZENDARIA**